

India

NEKAZARIEN SUIZIDIOEK ODOLUSTUTAKO LURRA

Merkataritza askeko nazioarteko itunek eta estatuko politikek milaka nekazari hiltzen dituzte urtero Indian, beren buruaz beste egitera bultzatuz, laborari elkarte ugari salatzen dutenez. Egoerak okerrera egin dezakeela ohartarazi dute, sektoreko krisia areagotu eta nekazaritza industrialak ezarritako eredu indartu ahala.



Esti Redondo

India hegoaldeko La Via Campesinako erakundearen koordinatzailea *Kannaiyan* goitizenez ezagutzen da. Kazetariekin egindako formazio saio batean “merkataritza askeko itunek nekazariak erailten dituzte” oihukatu zuenean isiltasuna nagusitu zen. Baina datuak ikusita, ez dago zalantzarik, azken hamarkadan Indiako 250.000 lurjabe gizonezko nekazari beren buruaz beste egin dute (emakumeak ez dira nekazaritza hartzen, ezta lurgabeak ere). Aurten kopuruek gora egin dezakete, nekazaritza krisia hedatzen ari den heinean.

Nekazari mugimenduen esanetan arrazoiak oso konplexuak dira, baina funtsean barneko eta nazioarteko merkataritza askeko politikak dira arduradunak, haiek eragindako krisiarekin, zorrek eta diru iturrien beherakadarekin lotura zuzena dutelako suizidioek. La Via Campesinaren hitzetan, “Indiako Gobernuak eta beste erakunde publiko batzuek ondorioei begiratzen diete arrazoiei begiratu ordez, euren ardura politikoa ezkatatuta”. 2015ean beren buruaz beste egin zuten



© YANN FORGET / WIKIMEDIA COMMONS

8.000 laborariak depresioak jota zeudela esaten du gobernuak.

Diru iturrien beherakada

Iraultza Berdea esaten diotenak, hau da, nekazaritza agroindustrialak, premia gorrira eraman ditu familiak La Via Campesinaren esanetan. Patente teknologi-

koak, diru-laguntzen desagerpena, landa eremuko kredituen konplexutasuna, herri merkatuen pribatizazioa, kanpo inbertsioak... krisi horren parte dira.

Merkataritza askeko itunak eta beselako nazioarteko akordioaren arauak direla-eta, nekazaritzako produktuen prezioak behera doaz eta aldi berean



Nekazarien suizidioengatik protestatzeko ekintza. Azken hamarkadan 250.000 lurjabe gizonezkoak egin dute beren buruaz beste Indian. Emakumeak eta lurgabeak ez dira nekazaritzat hartzen.

estatuek elikagaiak inportatzen dituzte, oso zerga txikiekin edo zerga gabe egiten dutelako. Indiako nekazariak ezin dute horrekin lehiatu.

Aurten berriro izango dute arazo bera, gobernuak garia eta patata inportatuko dituela adierazi du eta. Horretarako aitzaikia da Indian ez dela uzta nahikoa egon, baina nekazari mugimenduek gezurtatu egiten dute: "Arazoa da gobernuak ez duela elikagai nahikoa erosi eta gorde; Merkataritzarako Nazioarteko Erakundeak, Indiak sinatu dituen merkataritza askeko itunekin batera (80 baino gehiago), ez du horretarako aukerarik ematen". Nekazarien ordezkariak esaten dutenez, 1990era arte bere biztanle guztiak elikatzeko janari nahikoa ekoizten zuen Indiak; "orain barne ekoizpena suntsitzen ari dira *dumping* politikekin eta nekazariak behartzen dituzte salneurri txikiekin lehiazera".

Gutxieneko prezioak

Laborarien iritziz, Indiako Gobernuaren ardura izan beharko litzateke gutxieneko salneurriak ezartzea, langileak merkatuaren gorabeheretatik babesteko. Baina uzta gehienek ez dute oraindik gutxieneko preziorik eta dutenean txikiegia da, ez

da inolaz ere bidezko prezioa. India osoko La Via Campesinako mugimenduen aspaldiko borroka da hori, urtero milaka nekazari kalera ateratzen dituen. Yudvir Singh, Bharatiya Kissan Union (BKU) taldeko ordezkariak dioenez, "une honetan

» Nekazarien esanetan 1990era arte Indiak bere biztanle guztiak elikatzeko adina ekoizten zuen; oraingo politikek ekoizpena suntsitu eta zor etengabera eraman dituzte laborariak

» Pestizidak edatea, urkatzea eta uztarekin batera immolatzea dira masiboki erabilitako suizidio motetako batzuk

uztarekin dirua galtzen ari diren ekoizleak daude, oso baldintza eskasetan bizi direnak, eta badira uztak alferrik galtzen edo botatzen dituztenak ere".

Lehen sektorean ematen diren galerak neurri handi batean Iraultza Berdearen ondorioa dira, arazoa jasaten ari direnek sinpleki adierazten dutenez: gastuak biderkatu ziren –eta urtero handitzen dira– eta elikagaien salneurriak mantendu egin dira. Bertako baliabideak erabiltzen zituen eta ia diru inbertsiorik behar ez zuen nekazaritzatik urtero inbertsio handiak eskatzen dituen eradura pasatzean (haziak, pestizidak, ongarririk, erregaiak...), irabaziak gutxituz joan dira.

Hazi transgenikoen agerpenak itotzea areagotu zuen. Kotoi transgenikoak milaka nekazari hondamendira eta suizidiora eraman zituen, eta arrisku bera dakar ziapera transgenikoaren agerpenak. Ipar Indian oso labore garrantzitsua da ziapera, mostaza olioaren kontsumoagatik.

Horrek guztiak zor etengabera eraman ditu nekazari familiak, ordaindu ezin duten zorra. Eta depresio egoera larriak sortu dira: zordunak etxeetara joaten dira diru eske, eta horrek, herri txikietan, lotsa publikoa eta autoestimua galtzea dakar.

JAKINTZA GALDU, URA URRITU

Laborariak onartzen dute gehienek ezagutzak galdu dituztela: "Nekazaritza industrialeko bi belaunalditan galdu da bertako baliabideekin lan egiteko jakintza; eta nekazariak guztiz menpekoak dira hazi, ongarrri, merkatu eta uztez erabakitzeko garaian, eskualde bakoitzaren ezaugarrietara ohituta ez dauden barietate eta ekoizpenekin lanean ari dira. Adibidez, ur apur bat dagoenean alferrik galtzen da monolaborantzian, edo uholde bidezko urreztatze sistemekin".

Ur gabezia oso sakona eta larria da Indian. Nekazaritzako erabilerarako ura saltzen hasi dira, eta hasi dira ere komunitateen arteko gatazkak erretako ura dela eta. Iturrietan jendea zain egoten da, emakumeek kilometroak egiten dituzte ur bila... Hasita daude lehen mobilizazioak ere.



SOUTHLIVE

"Ez dago irabazietarako aukerarik", kexu dira, "uzta handia denean prezioek behera egiten dute merkatu legeak direla eta ez direla, eta uzta txikia bada prezioak aldatu egiten dira inportazio politikengatik eta gastuen igoerengatik". Horrekin batera, gora egin dute suizidio tasek.

Uzta txarrak

Sistema neoliberalak ez ditu nekazariak era bakarrean kaltetzen. Iraultza Berdeari lotutako laborantza industrialak, esaterako, klima aldaketaren eragileetako bat da; izan ere, Focus on South Global GKEren arabera CO2 emisioen %50 inguru nekazaritza eredu industrialetik datoz, basoen akabatzea, ongarrrien produkzioa, pestiziduen aireeratzea, makineria astunaren erabilera eta garraioa kontuan hartuta.

Hondamendi naturalak biderkatu egin dira Indian: uholdeak, zikloiak eta, gehienbat, lehorteak, epe luzeko eta kroniko bihurtzen ari direnak. Indiako eskualde handiek ur gabezia sufritu dute azken urteetan; toki horietan beren buruaz beste egiten dutenen kopurua ohikoa baino altuagoa da. Baina Indiako Gobernuak hartutako erabakiek ez dute sustatzen berotegi efektua gutxituko duen nekazaritza eredu bat. Eta efektu horren ondorioak leuntzeko neurriak ere ez du hartu.

Krisi honetan emakumeak ikusezin bihurtzen dira, estatistikek eta indiar jendarteak ez ditu laboraritzat hartzen, animalien eta hainbat uztaren arduranak badira ere. Emakumeek ez omen dute nekazaritza krisia jasaten, gabezia

egoeretan zaintza lanak biderkatu arren, gosegatik, gaixotasunengatik.... Eta emakumeak dira Indiako landa eremuan zaintzaren arduradun bakarrak. Haien bizitzak ikusezinak dira, eta are ikusezinago haien heriotzak: ez dago emakumeen suizidio taseen inguruko daturik. Datu orokorragoen barruan sartzen dira, eta batzuetan indarkeria matxista kasu moduan agerrarazi nahi dituzte.

Nekazarien erbestea

Pestizidak edatea, uzta gordetzen duten lekuan urkatzea eta uztarekin batera immolatzea dira masiboki erabiltzen diren suizidio motetako batzuk. Baina badago beste "heriotza" isilago bat, La Via Campesinak salatzen duenez: hirietara migratzea. Horrekin batera elikagaien ekoizpena galtzen da, hala nola kulturak, bizilagunen arteko harremanak, komunitatea...

Erbeste horrek beste arazo batzuk sortzen ditu harrera lekuetan: biztanle gehiegi dituzten hiriak, langabezi tasa altuak, ur edangarririk ez izatea, ez energiarik, ez garbitasunik... "Baina badirudi sistemarentzat errentagarria dela, oraindik ere bultzatzen duelako", dio La Via Campesinak. Indian, beste edozein herrialdetan bezala, migrazioa arrazoi ugariako fenomeno konplexua da, baina kasu honetan behintzat esan daiteke Narendra Modiren gobernuak bultzatzen duen industrializazio politikak zuzeneko lotura duela. Modi lurra desjabetzen eta nekazariak kaleratzen ari da, industria eta etxebizitzak eraikitzeko, eta horrek migrazioa handitu du.

Chukki Nanjundaswamy, Amrita Bhommi agroekologia eskolako koordinatzaileak, Karnataka eskualdean landa husten ari dela eta gazteek nekazaritzan sinesteari utzi diotela dio.

Halere, India laborari herrialdea da oraindik. Biztanleen %65 landa eremuan bizi da eta, guztiz edo neurri handi batean, nekazariak dira. Baina independentzia garaian %80 ziren; behe-rantzko joera argia da.

Dirurik gabeko ekonomia

Egoera okerra zen, baina gobernuak azaroan hartutako erabakiaren ondorioz nekazariak are egoera larriagoan daude orain. Diru beltzarekin amaitzeko aitzakiaz gobernuak billete zahar gehienak merkaturtik kendu eta berriak inprimatzen hasi zen, baina askoz kantitate txikiagoan, helburua transakzio elektronikoen bidezko ekonomia sortzea delako. Demonetizazioa deitu diote ekonomia txikiak hankaz gora jarri dituen prozesu horri.

Laborari askok ez dakite idazten edo irakurtzen, ez daukate ordenagailurik ez internetik, askotan banku konturik ere ez... Zaila da imajinatzea nolako izango den ibilbidea. Lehenengo ondorio latzak berehala etorri ziren: kalean dirurik ez, banku eta kutxazain gehienak itxita, ilara amaigabeak egunean baimenduta zeuden 2.000 errupia lortzeko, hamabost euro gutxi gorabehera. Komunikabideetan hirietako irudi dramatikoak azaltzen ziren, baina landa eremuan arazoa larriagoa zen, herri



AP PHOTO/RAJESH KUMAR SINGH



ESTI REDONDO



LA VIA CAMPESINA

Indiako nekazaritzaren krisian emakumeak ikusezinak dira, estatistikek eta jendarteak ez ditu laboraritzat, animalien eta hainbat uztaren arduradunak badira ere. Ez omen dute krisia jasaten, eurek bakar-bakarrik egiten dituzten zaintza lanak halako egoeretan biderkatzen diren arren: gaixotasunak, gosea... Testuinguru horretan, ez dago emakumeen suizidio tasei buruzko daturik.

banku kooperatibo gehienek ez baitzuten dirurik. Egoera horrek azaroa eta abendua bitartean iraun zuen.

Azaroa uzta garaia da, hilabete horretan lortzen dute familiek urterako dirua, baita hurrengo ereiterako behar dutena erostekoa ere. Eskuaratean diru fisikoa behar dute. Baina halakorik ez zegoen eta norbaitek baldin bazeukan ez zegoen gastatzeko prest. Denda txiki gehienak hainbat astez itxita egon ziren. Elikagaien prezioak jaitsi behar izan zituzten, ia oparitzeraino, inork ez zuelako erosi nahi. Askok udako uztaren dirua galdu dute eta ezin izan dute neguko uztan inbertitu.

Badago bere buruaz beste egiten ez duenik

Norberaren buruaz beste egiteko arrazoiak dirua dela esatea azalpen azalekoegia ematea litzateke, nekazari mugimenduen ustez. "Konponbidea sistema osoa aldatzea da", diote. Gobernuari bidezko salneurriak, inportazio merkeekin amaitzea, zorra barkatzea, hondamendi naturalei aurre egi-

teko laguntzak eta abar eskatzen dizkiote, baina neurri horiek, beharrezkoak izanaz gaitik, epe laburrekoak direlakoan.

Arazoari errotik heltzeko "elikadura burujabetzaren bidean jarriko gaituen agroekologian" oinarritzea galdatzen dute. "Ekoizpen sistema autonomoak behar ditugu, kanpoko inportatutako behar ez dutenak, kalitatezko uztak izateko eta indiar familiak elikatzeko".

Gobernua oso bestelako bideetatik doala salatzen dute. Darmendra Kumar BKUko kideak dioenez, agintariaren apustu berriena "nekazaritza adimentsu guneak" dira,

» Konpainia handien menpe ez daudenek prezio hobean ekoizten dute, ez dute zorrik eta ez dute beren buruaz beste egiten, La Via Campesinaren esanetan

pestizida ekoizleek diruz sustatutakoak. "Asmakizun hori zenbat pozoiz erabili behar dugun esaten digun teknologian datza", dio Kumarrek. Nekazarien arazoak konpontzeko baino, menpekoago bihurtzeko balio duen erreminta da haren iritziz.

Chukki Nanjundaswamyren hitzetan, "itxaropena nekazaritza alternatiboa da, ekonomia alternatibo baten barruan. Hori da gure apustua; horretan dabilzanek ez dute beren buruaz beste egiten". La Via Campesinak zabalduko datuen arabera, konpainia handien menpeko ez direnek askoz prezio hobean ekoizten dute eta bizitza kalitate handiagoa dute, zorrik gabe. Salmenta sare lokaletan antolatzen dute, eta ez dute dirurik galtzen inportazioen erruz. Urtetan ura jaso eta gordetzeko bideak garatu dituztenek, bertako aldaerekin lan egiten dutenek, lehortea pairatzen duten elikagaiekin ari direnek... bizitzeko adina ateratzeaz gain, klima aldaketari aurre egiteko aukera gehiago dute. Eredu hori zabalduz suizidioak iraganeko kontua besterik izan ez daitezela eginahalean dabil La Via Campesina. ■

3. finalaurrekoa | **DULANTZI** Kultur etxean | **OTSAILAK 19** igandea 17:30
Gaztelaniaz: Urtzi Añuna Ugarte

Oihane Pasaia Palo Mondakoa	Jon Edu Pineda Lekuana	Ander Solazarbal Kortabakoa	Izar Mendiguren Cosgaya	Paula Amilburu Izagara	Asier Oñamendi Aitoria

ARABAKO Bertsolari Txapelketa 2017

www.bertsotzale.eus/araba

Patroiz:

Patroiz: